



15KM DONOSTIA LASTERKETA **DBUS-EKO AUTOBUS LINEEN GELTOKIEN LEKUALDAKETAK**

Urriaren 17an, igandean, 15KM Donostia lasterketa egingo da hiriko kaleetan, **9:30etik 12:30era** gutxi gorabehera; hori dela-eta, autobus ibilbide eta geltoki batzuk aldatuko dira **eta autobus zerbitzu hauek doan izango dira** (0 euroko bidai txartela): 16, 19, 23, 32 eta 36 lineak.

Linea hauen ibilbideetan aldaketak egingo dira:

➤ **5 BENTA BERRI ETA 25 BENTA BERRI-AÑORGA**

Santa Katalina Zubian egongo dira bukaerako geltokiak.

- Antiguo alderantz, hau izango da ibilbidea: Santa Katalina Zubian hasita, Frantzia pasealekua, Iparreko Geltokia (geldialdia), Federico García Lorca, Urumea Pasealekua, Lehendakari Agirre Zubia eta Pio XII.eko autobus geltoki zaharraren bidea (geldialdia), eta Saihesbidea Errotabururaino.

Okendoko, Boulevardeko, Zubieta 14ko eta La Perlako geltokiak kenduko dira, Santa Katalina Zubira eta Iparreko Geltokira eramango baitira. Zumalakarregi Hiribidean eta Tolosa Hiribidean dauden geltokiak Matia kalera, R. M. Azkue kalera eta Zarautz Hiribidera pasatuko dira.

- Erdialderantz, hau izango da ibilbidea: Errotaburutik, Saihesbidea hartuko da Pio XII.era, Gernikako Arbola Pasealekura, Foru Pasealekura eta Santa Katalina Zubira (geldialdia).

Geltoki hauek kenduko dira: Tolosa Hiribidea, Zumalakarregi Hiribidea, Ondarreta, San Martin kaleko 57, Askatasuna Hiribidea 31, Okendo eta Boulevard.

Antiguotik Errotaburura eta Errotaburutik Antiguora joateko, Errotaburu-Antiguo bitarteko **LOTURA ZERBITZUA** hartu beharko da (doakoa). Zerbitzu hori Matia kaletik, Resurreccion Maria Azkue kaletik, Zarautz Hiribidetik eta Errotaburutik joango da.

➤ **18 SEMINARIOA**

- Antiguo alderantz, hau izango da ibilbidea: Santa Katalina Zubitik, Frantzia pasealekua, Iparreko Geltokia (geldialdia), Federico García Lorca, Urumea Pasealekua, Lehendakari Agirre zubia, Pio XII.eko autobus geltoki zaharraren bidea (geldialdia), Saihesbidea Errotaburuko biribilguneraino, eta Lugaritz pasealekutik igo eta Pio Barojatik jaitsi, Mikeleteetaraino (16 linearen geltokietan geratuko da), berriro ohiko ibilbidea hartzeko.

Geltoki hauek kenduko dira: Gipuzkoa Plaza, Zubieta 14 eta La Perla.

- Erdialderantz doanean, Mikeleteetan hasi eta Pio Barojatik (16 linearen geltokietan geratuko da) eta Lugaritz Pasealekutik joango da, eta Errotaburuko biribilgunetik Saihesbidera sartu eta handik Pio XII.era. Pio XII.etik, Gernikako Arbola Pasealekutik eta Foru Pasealekutik igaroko da eta Santa Katalina Zubian egingo du geldialdia.

Geltoki hauek kenduko dira: San Martin 57, Askatasuna Hiribidea 31, Okendo eta Gipuzkoa Plaza.

➤ **16 IGELDO**

10:00etatik 12:30era gutxi gorabehera

16 lineak ez du zerbitzurik emango Gipuzkoa Plazaren eta Ondarreta aldearen artean.

Erdialdetik Pio Barojara joan nahi duten erabiltzaileek (Sanserreka, zerbitzurik gabe) Antiguorantz doazen zerbitzuak har ditzakete (18L), denak Amaratik eta Saihesbidetik ibiliko direlako Matia kalera heltzeko. Toki horretatik aurrera bidaiariak Satrustegi Hiribideraino joan daitezke oinez, eta Jose Maria Satrustegiko geltokian (Ezeiza) **lotura zerbitzua** hartu.

IGELDOko zerbitzuak: Jose Maria Satrustegi kaleko geltokitik (Ezeiza) Igeldo auzoa Antiguoko auzoarekin **LOTZEKO ZERBITZUAK** egingo dira.

➤ **17 GROS-AMARA-MIRAMON**

- Gros alderantz, lehen ordutik eta Madril Hiribidean lasterketaren irteera gunea libre geratu arte, hemendik ibiliko dira: Zorroaga pasealekua, Toribio Alzaga, Irun Plaza, Felipe IV.a eta Eustasio Amilibia. Behin-behineko geltoki bat egongo da Pio XII.eko parkean, Eustasio Amilibian jiratu ondoren. **LASTERKETAREN IRTEERAN (9:30ETIK 11:00ETARA GUTXI GORABEHERA), AMARA PLAZATIK ATERAKO DIRA ZUZENEAN, IBAIRANTZ.** Antso Jakitunik eta Luca de Tenatik jarraituko dute, Groserantz. Pinudi-Mirakruzen sartzean, Jai Alairantz eta Fernando Sasiainerantz joango da, Kotxetegietan buelta emanez, Ategorrieta 41era bueltatzeko. **Geltoki hauek kenduko dira: Madril 3 eta Madril 17 (helmuga muntatzen eta desmuntatzen duten bitartean), Iparragirre, Zurriola, Groseko Anbulategia, Nafarroako Etorbidea 34.**

- Amara alderantz: Iparreko Geltokitik aurrera F.G. Lorcatik, Urumea Pasealekutik, Lehendakari Agirre Zubitik, Pio XII.eko autobus geltoki zaharretik (geldialdia) joango da, eta ohiko ibilbidea egiten jarraituko du Pio XII.etik.

Geltoki hauek kenduko dira: Bilbo Plaza, Mendeurrenaren Plaza, Antso Jakituna 12, eta Antso Jakituna 28 II.

➤ **8 GROS-INTXAURRONDO**

9:30etik 11:30era gutxi gorabehera

- Erdialderantz, Colón Pasealekuraino baino ezingo da iritsi. Amaierako geldialdia Pinudi-Mirakruz 14an egingo du (29 linearen geltokian)

Geltoki hauek kenduko dira: Askatasunaren Hiribidea 6 eta Boulevard.

- Intxaurrondo alderantz, Pinudi-Mirakruzetik joango da, gero Mirakuzetik jarrituko du(29 lineako geldialdiak eginez) Jai Alaiko tuneetik bere betiko ibilbidearekin jarraituz. **Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard, Askatasunaren Hiribidea 19, Iparragirre eta Zurriola, Groseko Anbulategia eta Nafarroako etorbidea 34.**

➤ **9 EGIA-INTXAURRRONDO**

9:30etik 11:30era gutxi gorabehera

- Erdialderantz, Iztuetako biaduktutik Frantzia Pasealekura, Maria Cristina Zubira eta Foru Pasealekura joango da, eta amaierako geldialdia Santa Katalina Zubian egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Euskadi Plaza, Askatasunaren Hiribidea 6 eta Boulevard.

- Intxaurrondo alderantz, Santa Katalina Zubitik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard eta Askatasunaren Hiribidea 15.

➤ **29 HEGO INTXAURRRONDO SUR**

9:30etik 11:30era gutxi gorabehera

- Erdialderantz, Galtzara Nagusitik Colонера desbideratuko da Mirakruz kalerantz. Bukaerako geldialdia Pinudi-Mirakruz 14an egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Zurriola eta Boulevard.

- Intxaurrondo alderantz, Pinudi-Mirakruzetik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard eta Askatasunaren Hiribidea.

➤ **13 ALTZA eta 14 BIDEBIETA**

9:30etik 11:30era gutxi gorabehera

- Erdialderantz, Ategorrietako etorbidetik, Jai Alaitik eta Galtzara Nagusitik aurrera Colón Pasealekuan sartuko da, eta Mirakruzen bukaerako geldialdia egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Jesuitak, Mariaren Bihotza, Zurriola Kursaal, Boulevard eta Gipuzkoa Plaza.

- Altza eta Bidebieta alderantz, Pinudi-Mirakruzetik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard, Gipuzkoa Plaza eta Askatasunaren Hiribidea.

➤ **19 AIETE-BERA BERA (mikrobusarekin)**

- Erdialderantz, Aiete 1etik Marinistaseraino jaitsiko da, Lizarra eta Aldapeta kaleen arteko bidegurutzean buelta emateko. (Boluntario bat egongo da maniobra egiten laguntzeko)

Easo 27, Okendo eta Peñafiorida geltokiak kendu dira.

- Aieterantz, azken geltokia Marianistas izango da. Maniobra egin ondoren, ohiko ibilbidearekin jarraituko du.

Peñaflorida, Urbietta 6 eta Larramendi geltokiak kendu egin dira.

➤ **23 ERRONDO-PUIO eta 32 PUIO-ERRONDO (mikrobusarekin)**

Buelta guztiak 32 lineak bezala egingo ditu, ibilbide honekin:

- Errondora alderantz, Marianistasetik Lizarra-Aldapeta kaleko bidegurutzean buelta emango dute (boluntario bat egongo da maniobra egiten laguntzeko), gailurreraino igoko dira eta Lazkano pasealekutik Amarako bidea hartuko dute, Katalina Eleizegi eta Puiotik igo eta San Joan Jainkoareneraino iristeko.

Urbietta 38, mendeurrena, Pio XII eta Errondo pasealekua geltokiak kendu egingo dira.

- Erdialderantz, San Joan Jainkoarenera itzuli ondoren, Errondo gainetik itzuliko dira, Borroto kaletik, Etxadi kaletik, Aieteko pasealekutik La Cumbre kaleraino, Aladapteta Marianistaraino jaisteko.

Errondo Barkaiztegi, Collado, Antso Jakituna, Easo Plaza eta Urbietta 38 geltokiak kendu egingo dira. Katalina Eleizegi 1, Katalina Eleizegi 13 eta Katalina Eleizegi 25 geltokiak Katalina Eleizegi 2, Katalina Eleizegi 34 eta Katalina Eleizegi 48 geltokietara lekualdatuko dira, hurrenez hurren.

➤ **21 MUTUALITATEAK-ANOETA**

9:20tik 12:30era gutxi gorabehera

Errondo pasealekutik, Morlansetik eta Mutualitateen aldetik ibili ezin izango dutenez, **linea horien zerbitzua kendu egingo da.**

Alde horietara joan nahi duten erabiltzaileek Amara aldera doazen ohiko lineen zerbitzuak erabili ahal izango dituzte (26 eta 28 lineak).

➤ **26 AMARA-MARTUTENE**

- Martutene alderantz: Santa Katalinatik aurrera, hemendik joango da: Frantzia Pasealekua, Iparreko Geltokia (geldialdia), Federico García Lorca, Urumea Pasealekua, Lehendakari Agirre Zubia, Pio XII.eko autobus geltoki zaharra (geldialdia).

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard, Urbietta 6, Mendeurrena eta Antso Jakituna 28 II.

- Erdialderantz: 8:00etatik eta Madril Hiribidean lasterketaren irteera gunea libre geratu arte, hemendik ibiliko dira: Irun Plaza, Felipe IV.a eta Eustasio Amilibia. Behin-behineko geltoki bat egongo da Pio XII.eko parkean, Eustasio Amilibian jiratu ondoren. **LASTERKETAREN IRTEERAN (9:30ETIK 11:00ETARA GUTXI GORABEHERA), AMARA PLAZATIK ATERAKO DIRA ZUZENEAN, IBAIRANTZ.** Antso Jakituna 35etik, Luca de Tenatik, Bizkaia Pasealekutik eta Gernikako Arbola Pasealekutik jarraituko dut eta Santa Katalina Zubira iritsiko dira.

Geltoki hauek kenduko dira: Madril 5 (helmuga muntatzen eta desmuntatzen den bitartean), Easo Plaza, Easo 19, Okendo eta Boulevard. Mundaiz Zubian, Gernikako Arbola Pasealekuan, Maria Cristina Zubian eta Santa Katalina Zubian dauden geltokietan geratuko dira.

➤ **28-AMARA-OSPITALEAK**

- Ospitaleetarantz, Santa Katalinatik aurrera, hemendik joango da: Frantzia pasealekua, Iparreko Geltokia (geldialdia), Federico García Lorca, Urumea Pasealekua, Lehendakari Agirre Zubia, Pio XII.eko autobus geltoki zaharra (geldialdia).

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard, Urbietta 12, Urbietta 58, Antso Jakituna 12 eta Antso Jakituna 28 II.

- Erdialderantz, 7:30etik eta Madril Hiribidean lasterketaren irteera gunea libre geratu arte, hemendik ibiliko dira: Zorroaga Pasealekua, Toribio Alzaga, Irun Plaza, Felipe IV.a eta Eustasio Amilibia. Behin-behineko geltoki bat egongo da Pio XII.eko parkean, Eustasio Amilibian jiratu ondoren. **LASTERKETAREN IRTEERAN (9:30ETIK 11:00ETARA GUTXI GORABEHERA), AMARA PLAZATIK ATERAKO DIRA ZUZENEAN, IBAIRANTZ.** Antso Jakituna 35etik, Luca de Tenatik, Bizkaia Pasealekutik eta Gernikako Arbola Pasealekutik jarraituko dute eta Santa Katalina Zubira iritsiko dira.

Geltoki hauek kenduko dira: Madril 5 eta Madril 19 (helmuga muntatzen eta desmuntatzen den bitartean), Antso Jakituna 11, Easo Plaza, Easo 19, Okendo eta Boulevard. Mundaiz Zubian, Gernikako Arbola Pasealekuan, Maria Cristina Zubian eta Santa Katalina Zubian dauden geltokietan geratuko dira.

➤ **24 ALTZA-GROS-ANTIGUO-INTXAURRONDO**

- Antiguo alderantz, Toki Ederretik, Ategorrieta etorbidetik jarraituko dugu, Kale Nagusia, Colón pasealekura sartzeko, Iparraldeko Geltokia, eta, ondoren, Federico García Lorcatik joango gara., Lehendakari Agirre Zubitik, Pio XII.eko autobus geltoki zaharretik joango da, Pio XII.eko geltokian ohi bezala geldialdiak eginda. Saihesbidetik jarraituko du, eta Errotaburuko biribilgunera iritsiko da. Handik, Lugaritzetik gora egingo du eta Pio Barojatik, Matia Kaletik eta Zarautz hiribidetik jaitsiko da. Azkenean, Zarautz hiribideko ibilbide bukaerako geldialdia egingo du (Hesperia Hotela).

Jesuitaseko, Mariaren Bihotzeko, Bilbo Plazako, Mendeurreneko eta Zumalakarregiko geltokiak kenduko dira.

- Larratxo alderantz, Zarautz hiribidetik (Hesperia Hotela) Lugaritzetik gora egingo du eta Pio Barojatik jaitsiko da. Gero Mikeleteetan buelta eman, eta Pio Barojan ibilbidea egiten hasiko da Amaraantz. Lugaritzetik jaitsiko da berriro, eta Errotaburuko biribilgunetik Saihesbidera sartuko da eta Pio XII.ean irtengo da. Handik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Colladoko, Zumalakarregiko eta Tolosa Hiribideko geltokiak kenduko dira.

➤ **27 ALTZA-INTXAURRONDO-ANTIGUO-GROS**

- Antiguo alderantz, Pio XII.eko Plazan duen geltokitik Antiguora abiatuko da Saihesbidetik, Lugaritzetik gora egingo du eta Pio Barojatik jaistean, Matia kalera, R. M. de Azkue kalera eta Zarautz Hiribidera sartuko da, eta Zarautz Hiribidean ibilbide bukaerako geldialdia egingo du (Hesperia Hotela). Lasterketaren irteeran, eta Madril Hiribidean helmuga desmuntatu bitartean, hemendik ibiliko dira: Irun Plaza, Felipe IV.a eta Eustasio Amilibia. Behin-behineko geltoki bat egongo da Pio XII.eko parkean, Eustasio Amilibian jiratu ondoren.

Madril 3ko geltokia kenduko da, Pio XII.eko parkera eramango baita.

- Larratxo alderantz, Zarautz Hiribidetik (Hesperia Hotela), Lugaritzetik gora egingo du Melodiraino, eta Lugaritzetik jaitsiko da berriro. Gero, Errotaburuko biribilgunetik Saihesbidera sartuko da eta Pio XII.ean irtengo da. Handik aurrera ohiko ibilbidea egingo du. **Zumalakarregi Hiribideko, Tolosa Hiribideko eta Colladoko geltokiak kenduko dira.**

➤ **31 INTXAURRONDO-AIETE-OSPITALEAK**

9:40etik 12:40era gutxi gorabehera

Easo kalea gurutzatu ezingo denez eta, beraz, Aietera igo eta jaitsi ezin izango denez, **linea horren zerbitzua kenduko da.**

➤ **33 LARRATXO-INTXAURRONDO-ANTIGUO-BERIO**

- Antiguo alderantz, hemendik ibiliko da: Colón pasealekua, Frantzia pasealekua, Iparreko Geltokia (geldialdia), F.G. Lorca, Lehendakari Agirre Zubia, Pio XII.eko autobus geltoki zaharra (geldialdia), Saihesbidea, eta Errotaburu (geldialdia 5 linearen geltokian). Errotaburutik eskuinera egingo du Xabier Lizarditik Bernardo Estornes Lasaraino; gero, lbaetako biribilgunean norabide aldaketa egingo du Mugikortasuneko Agenteen laguntzarekin eta Igarako amaierako geltokirantz jarraituko du. Beriotik bueltan baino ez da igaroko.

Geltoki hauek kenduko dira: Askatasunaren Hiribidea 18, Zubieta 14 eta La Perla, Iparreko Geltokira eramango baitira. Zumalakarregiko eta Tolosa Hiribideko geltokiak kenduko dira eta Matia kalean, R. M. Azkuen eta Zarautz Hiribidean geratuko da. Beriorako ibilbideko joaneko geltokiak kendu egingo dira.

Antiguotik Errotaburura eta Errotaburutik Antiguora joateko, Errotaburu-Antiguo bitarteko **LOTURA ZERBITZUA** hartu beharko da (doakoa). Zerbitzu hori Matia kaletik, Resurreccion Maria Azkue kaletik, Zarautz Hiribidetik eta Errotaburutik joango da.

- Larratxo alderantz, Igaratik ohiko ibilbidea egingo du Beriotik Gelategiraino; Unibertsitateetako zerbitzu bidea hartuko du eta lbaetako biribilgunetik, eskuineko erreia hartu Amerika Plaza alderantz, Errotaburun sartuko da (geldialdia 5 linearen geltokian) eta Saihesbidera joango da. Gero Pio XII.era, Bizkaia Pasealekura eta Foruen Pasealekura irtengo da, eta Santa Katalina Zubiraino iritsiko da.



Zumalakarregiko, Tolosa Hiribideko eta Elhuyar Plazako (Gelategia) geltokiak kenduko dira. San Martin 57ko, Askatasunaren Hiribidea 21eko eta Askatasunaren Hiribidea 3ko geltokiak Santa Katalina Zubira eramango dira.

➤ **35 ANTIGUO-AIETE-OSPITALEAK**

- Ospitaleetatik Antiguorantz: Pio Barojatik jaisterakoan Matia kalean sartuko da (kale honetan gelditu egingo da); gero, Resurreccion Maria Azkue kalera joango da (geldialdia) eta Zarautz Hiribidera. Amerika Plazara iritsi ondoren, Errotaburutik sartuko da eta eskuinera egingo du Xabier Lizarditik, Bernardo Estornes Lasaraino. Gero noranzko aldaketa egingo du Ibaetako biribilgunean, Mugikortasuneko Agenteeek lagunduta, eta Diario Vascorantz jarraituko du. Beriotik igoko da eta Unibertsitatearen biribilgune txikira jaitsiko da. Elhuyar Plazan, ezkerreko erreia prestatuko da Arriola alderantz sartzeko, kontrako noranzkoan.

Geltoki hauek kenduko dira: Zumalakarregi eta Tolosa Hiribidea, eta Julianategiko geltokia.

- Ospitaleetarantz: Gelategitik aurrera, Unibertsitateetako zerbitzu bidetik joango da eta Igarako biribilgunera iritsiko da; handik Amerika Plazara eta, gero, Lugarizetik igo eta Pio Barojatik jaitsi, eta Mikeleteetan buelta emango du, eta Pio Barojan Ospitaleetarako bideari ekingo dio.

Geltoki hauek kenduko dira: Tolosa Hiribidea eta Zumalakarregi Hiribidea, Elhuyar Plazara eramango baitira.

➤ **36 SAN ROKE-ALDAKONEA**

Linea bitan bereiziko da.

- San Roke aldea, Arroka plazatik Matiara. Aldapetatik jaistean, Easo kalea, San Bartolome kalea, Urbieta kalea, Larramendi kalea, Lizarra kalea eta Arroka plaza zeharkatuko ditu. Arroka plazatik ibilbide arrunta Matiaraino. Easo kaleko lasterketa gurutzaketak Mugikortasun Agenteeek kontrolatuko dituzte.

Euskadi plazako geralekuak kendu egingo dira. Askatasuna 20, Urbieta 6 eta 38, San Rokeko guztiak (erdialdeko noranzkoan).

- Aldakonea aldea, Konkorreneatik ohi bezala jaitsiko da, eta Iztueta zubian bira egingo du Frantzia Pasealekurantz, Maria Cristina Zubirantz, Foru Pasealekurantz eta Santa Katalina Zubirantz.

Geltoki hauek kenduko dira: Easo Plaza, Easo 27 eta Askatasunaren Hiribidea 19.

➤ **37 RODIL-ZORROAGA**



- Zorroagarantz, Manteotik Ategorrietako galtzada zaharretik jarraituko dugu Hiribidera iristeko. Elozegi Alkatea, Ategorrieta etorbidea, Kale Nagusia, Kolon pasealekua eta Frantzia pasealekurantz eta Iparraldeko Geltokirantz jarraitzen du ohiko ibilbideari berriro ekiteko. Lasterketaren irteeran, Balleneroetik Anoetara joango da zuzenean. Mariaren Bihotza, Zurriola, Gipuzkoa plaza eta Askatasunaren hiribidea 7 geltokiak kendu egingo dira.

Geltoki hauek kenduko dira: Zurriola eta Gipuzkoa Plaza.

- Rodil alderantz, lasterketaren irteeran, Ospitaleetatik jaistean Zorroaga pasealekutik, Toribio Alzagatik, Irun Plazatik, Felipe VI.etik eta Eustasio Amilibiatik joango da. Behin-behineko geltoki bat egongo da Pio XII.eko parkean, Eustasio Amilibian jiratu ondoren. Pio XII.etik aurrera, Amara Plaza Hotelean jiratuko du eta Gernikako Arbolatik, Foru Pasealekutik joango da (17 linearen geltokietan geldialdiak eginda), eta gero, ohiko ibilbidea eginez, Santa Katalina Zubiraino helduko da. Posible denean Antso Jakituna 33raino iritsiko da eta Luca de Tenatik irtengo da.

Geltoki hauek kenduko dira: Easo Plaza, Easo 27 eta Askatasunaren Hiribidea 21.

➤ **42 ALDAPA-EGIA**

9:30etik 11:30era gutxi gorabehera

- Erdialderantz, Galtzada Nagusitik aurrera Colón Pasealekua, Frantzia Pasealekua, Maria Cristina Zubia eta Foru Pasealekua igaroko ditu, azken geldialdia Santa Katalina Zubian egiteko.

Geltoki hauek kenduko dira: Kursaal eta Boulevard.

- Aldapa alderantz, Santa Katalina Zubitik aurrera ohiko ibilbidea egingo du.

Geltoki hauek kenduko dira: Boulevard eta Askatasunaren Hiribidea 15.

➤ **45 RENFE-BUS GELTOKIAK-ANTIGUO-AIETE**

- Antiguo-Aiete alderantz ibilbide hau egingo da: Geltokietan hasi, eta F.G. Lorca, Lehendakari Agirre zubia, Pio XII.eko autobus geltoki zaharra (geldialdia), Saihesbidea Errotaburuko geltokiraino (5L). Errotaburutik ohiko ibilbideari ekingo dio berriro Bera Bera-Pagolarantz.

Geltoki hauek kenduko dira: Askatasunaren Hiribidea 18, Zubieta 14 eta La Perla, Iparreko Geltokira eramango baitira. Zumalakarregikoa eta Tolosa Hiribidekoa ere kenduko dira.

- Erdialderantz ohiko ibilbidea egingo da Amerika Plazaraino, eta Errotaburun sartuko da (lotura zerbitzua erabili duten bidaiariak hartzeko) eta Saihesbidetik jarraituko du Pio XII.eraino. Pio XII.etik, Gernikako Arbola pasealekutik eta Foru Pasealekutik igaroko da (17 linearen geldialdiak eginez), eta Santa Katalina Zubitik eta Geltokietatik igaroko da.



Geltoki hauek kenduko dira: Tolosa Hiribidea, Zumalakarregi Hiribidea, Ondarreta, San Martin 57 eta Artzain Ona.

Erroburutik Antiguora joan nahi duten bidaiariek Errotaburu-Antiguo bitarteko **LOTURA ZERBITZUA** hartuko dute (doako zerbitzua).

➤ **46 SAN ANTONIO-MORLANS**

Morlans aldea, 9:40etik 12:40era, gutxi gorabehera

Kendu egingo da Askatasuna hiribidea eta Morlans arteko ibilbidea. Euskadi plazako, Askatasuna 20ko, Urbieta 6 eta 38ko, San Rokeko guztiak (erdialdeko noranzkoan) geralekuak kendu egingo dira.

- San Antonio aldea, Santa Katalina zubitik San Antoniorako ohiko ibilbidea egingo du, Colon pasealekua, Frantzia pasealekua, M^a Cristina zubia, Foru pasealekua eta Santa Katalina zubia (burualdea) igarota.

Jesuitak eta Mariaren Bihotza geltokiak kendu egingo dira, eta guztiak Askatasunaren hiribidetik Morlansera.

Lasterketak aurrera egin ahala lineak ohiko ibilbideak egiten hasiko dira poliki-poliki.

Informazio gehiagorako, deitu 943 000 200 telefonora, edo www.dbus.eus webgunean.

